

BALIO PROPOSAMENA

Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da balio proposamena, eta lehiakideengandik bereizten gaituena. Horretarako ondorego gauzak izan ditugu kontuan:

- **Berritasuna** → Antzekoak diren zerbitzuak eskaintzen ez duten zerbeit ematea. Adibidez, behar bereziak dituzten umeentzako zerbitzu espezializatua izatea, taberna bat izatea umeak ikusi ahal izateko, jostailu ezohikoak eskaintzen dituen denda...
- **Prezioa** → Ez ditugu prezio hain altuak jarriko eta dirua beste modu batera irabazten saiatuko gara. Adibidez, taberna edota jostailu dendarekin.
- **Eskuragarritasuna** → Pertsona gehienak eskuratu ahal izatea da gure ideia. Jende ugari dabilen leku batean kokatuz eta prezio erakargarriak jarritz.
- **Osotasuna** → Osotasuna bilatzeko, ume guztioi zuzendu gara, baita haien gurasoei taberna eta denda jartzerako orduan.

Lokalean, behar bereziak dituzten haurrentzako gela zabala eraikiko dugu. Hemen hurrekin denbora pasako dugu eta ariketa ludikoak egingo ditugu, izan ere, halako ezaugarriak dituzten umeen gurasoek, normalen, besteek baino denbora gutxiago dute, haur hauen zainketa eta orokorrean, egunerokoa zailagoa delako eta denbora gehiago behar izaten duelako; beraz, arratsaldeetan edo gure ordutegien barruan, aisialdirako aukerak eskaintzen dizkiegu; hau da, umeak *Unimomuny*-ra ekar ditzakete.

Horretaz aparte, behar berezirik ez dituzten umeentzat beste gela bat izango dugu, Honek, umei neguan arratsaldero etxean aspertuta ez geratzeko (telebista ikusten, mugikorrarekin, ordenagailuarekin...) , behar bereziko hurrekin harremanetan jartzeko, beste egoera horiek ezagutzeko aukera emango die. Gurasoek erosketetan dauden bitartean lasai eta ondo egoteko giroa eskaintzen zaie beste gauza askoren artean.

Kanpoaldean gurasoentzako leku-gune bat egingo dugu, non gurasoak beirazko ispilu baten bitartez haurrak ikusteko aukera izango duten nahi izanez gero. Gainera, guk egindako jostailuak salduko ditugu; alde batetik, material birziklatuekin egindako jostailuak, hauek, ez dute prezio finkorik izango, erosleek erabakiko dute zenbat ordaindu. Eta beste alde batetik egurrezko jostailuak salduko ditugu, hauen prezioa, sortzen dituen artisauak saltzen dituen prezioaren arabera izango da. Mota hauetako jostailuak saltzeak, ahalbidetzen du edozein maila ekonomikoko jendeak, jostailuak bertan erosi ahal izatea eta umeari errealitatera hurbiltzen lagunduko dioten jostailuak aurkitu ahal izatea eta gainera material naturalagoaz egindakoak eta beste denda batzuekin konparatuz, askoz gutxiago egituratuak; honek guztiak edozein umeren garapen integral egokia bultzatzen du.



Unimomunyk duen bereizgarri bat da eskaintzen dugun kalitatea; hau da, instalazioen kalitatea, kalitatezko profesionalak, kalitatezko harremanak, etb. Baina gure bereizgarriak nabarmenenak, alde batetik, behar bereziko umeentzako zerbitzuak izatea da nahiz eta beste haurrentzako zerbitzuak ere baditugun, askoz urriagoak baitira hezkuntza premia bereziak dituzten haurrei zuzentzen direnak.

Beste alde batetik, gurasoentzako taberna bat izatea da bereizgarriak nabarmenetakoa, bere umeak jolasean dauden bitartean zerbait hartzen gelditu daitezkeelako eta gainera handik haien umetxoak eta egiten diren ariketak ikus ditzaketelako eta azkenik, jostailu denda da, izan ere edozein "txiki-park" edota "ludoteka" ez dute horrelako dendarik. Gainera, saltzen ditugun jostailuak gure eskuz egindakoak izango dira, material birziklatuarekin (ordaintzeko prest daudena ordainduko dute haiengatik) horrek beste enpresa batzuetatik bereizten gaitu. Horretaz aparte, artisau batek material naturalekin egindako jostailuak ere salduko dira.

Beraz gure balorea kuantitatiboa da, prezio eskuragarria duelako eta kualitatiboa diseinu polit eta atsegina izango duelako.